

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Agustin Ugalde Ugarriza

*Zeberio
Bizkaia (1940)*

Aurkibidea



Biografia



Guraso biak Zeberioakoak zituen. Olazar baserrian bizi ziren eta sei senidetan hirugarrena zen Agustin. Santa Krutzen ibili zen eskolan 14 urtera arte eta gero aitarekin basoan lanean, 26 urterekin Ameriketara joan zen arte. 1967an Goodingera joan zen (Idaho) artzain. Bi ardi-konpainiatan egon zen lanean (Faulkner eta Astorkia), "campero" eta arrantxoko lanetan. 1973an Elkon (Nevada) hasi zen lanean, autopistako tunelak egiten, eta geroztik bertan bizi izan da. Eraikuntzan aritu zen gero. Ranchin casinoan ere ibili zen lanean, tabernari. Azken lan-urteak eskola bat garbitzen eta eskolako autobus gidari moduan eman zituen. Jury Moses amerikarrarekin ezkondu zen (hark seme bat zeukan aurretik) eta bi alaba izan zituzten: Maite eta Arantza. Elkoko euskal etxeko kide aktiboa izan da, emaztearekin batera (dantzarien arropak josten zituen) eta besteak beste mus txapelketetan hartu du parte.

Zintak

ZEB-024

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-23
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com